


Azken asteetan, oinarrizko eskubide demokratikoen aurkako errepresio basatia jasan dute Kataluniako gazteek eta langileek: ez da halakorik ikusi diktaduraz geroztik: okupazio poliziala indarkeria basatiarekin, Kataluniako autonomia indargabetzen duen 155. artikulua aplikatzea eta Jordi Sánchez eta Jordi Cuixart ANCko eta Òmniumeko presidenteak atxilotzea. Alderdi Popularreko gobernua Kataluniako herriaren erabakitze eskubidea zapaltzen saiatzen ari da, Ciudadanosen, PSOEko zuzendaritzaren, Estatu zentralistaren eta koroaren babesarekin.

### Demokrazia errepresioaren aurka

Beste behin, argi gelditu da zer-nolako demokrazia defendatzen duten: legeak gure eskubide demokratikoak zapaltzeko eta aberatsen interesak defendatzeko erabiltzen dituzte Alderdi Popularrean dauden ustelak jazarri eta kartzelara bidaltzeko erabili beharrean. Hori da beraientzat demokrazia.

Gobernuaren errepresio basati honi herriak eman dion erantzuna eredugarria izan da: urriaren 1ean bozkatzeko eskubidea defendatuz eta behin eta berriro kalera ateraz, urriaren 3ko greban edo azken egunotako mobilizazioetan ikusi dugun bezala, besteak beste.

Mugimendu honen aurrean, 700 enpresa baino gehiagok iragarri dute beren egoitza sozialak Kataluniatik aterako dituztela. Kataluniako oligarkak, aberatsak eta bankariak kapitalista espainiarren eta beren gobernu zapaltzailearen ondoan daude. EAJ ere alde berean kokatu da; keinu hipokritak eta elkarrizketarako deiak egin arren, PPren gobernua babestu du, euskal burgesiari irabazi gehiago emateko helburu soilarekin.

### Guztiok manifestazioetara!

PPren gobernua, Ciudadanos eta PSOErekin batera, 155 indarrean jartzeko prestatzen ari da Kataluniaren autonomia indargabetzeko. Hezkuntza publikoan beren nazionalismo españolista, ideia atzerakoiak, bandera rojigualdaren eta koroaren kultua inposatu nahi dituzte, baita Euskal Herrian eta Estatu osoan ere. Kataluniako herria belauniko jarri nahi dute, eta Estatu osoko langileei eta gazteei lezio bat eman. Ez dute lortuko!

Hori dela eta, Ikasle Sindikatutik dei egiten dugu Euskal Herriko gazteak kaleetara atera gaitezen, ikasle katalanei elkartasuna erakusteko, errepresio frankista garaitzeko eta gure eskubideak defendatzeko borroka honetan. Horretarako, institutu eta fakultate guztietan asanbladak eta Defentsa Komiteak sortzeko deia egiten dugu, eta Sindicat d'Estudiants-ek urriaren 25 eta 26rako deitu duen grebarekin bat eginez, urriaren 26an 11etatik aurrera klaseak bertan behera uztea proposatzen dugu 12:30etan Gasteizen, Donostian eta Bilbon deituta dauden mobilizazioetan parte hartzeko.

Tinko borrokatzeko garaia da. Horregatik, Ikasle Abertzaleetako eta Ernaiko kideei dei egiten diegu mobilizazio horietan parte har dezaten, modu bateratuan Kataluniako langile eta gazteei gure elkartasuna adierazteko, oligarkarik eta errepresiorik gabeko Kataluniako errepublika askearen aldeko borrokan.

**¡Visca Catalunya lliure, republicana i socialista!**

**Antola zaitez Ikasle Sindikatuan!**

## Guztiok mobilizazioetara urriaren 26an, 12:30etan

- Bilbo: Plaza Eliptikoan (Moyua)
- Donostia: Bulebarrean
- Gasteiz: Andra Mari Zuriaren plazan

www.ikaslesindikatua.net

Afilia zaitez gure web gunean!

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker iraultzailearen aldizkaria

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA: www.euskalherriasozialista.net • Tel: 685 708 281 • euskalherriasozialista@hotmail.com
IKASLE SINDIKATUA: Araba: 945 231 202 • Bizkaia: 633 133 818 • Gipuzkoa: 626 450 517 • Nafarroa: nafarroaikaslesindikatua@gmail.com
Ikasle Sindikatua / IkasleSindikaGi (Gipuzkoa) / IkasleSind (Bizkaia) / ikaslesindikatua




En las últimas semanas los jóvenes y los trabajadores en Catalunya han vivido una escalada represiva contra los derechos democráticos más básicos, que no se veía desde la dictadura: una ocupación policial con una violencia salvaje, la aplicación del artículo 155 que anula la autonomía catalana o la encarcelación de Jordi Sànchez y Jordi Cuixart, presidentes de ANC y Òmnium. El gobierno del Partido Popular, con el apoyo de Ciudadanos y del PSOE, el Estado centralista y la Corona están intentando aplastar el legítimo derecho a decidir del pueblo catalán.

## Democracia contra represión

Una vez más ha quedado claro en la práctica qué democracia defienden. Una democracia en la que las leyes se utilizan para pisotear nuestros derechos y defender los intereses de los ricos en vez de perseguir y encarcelar a los corruptos que inundan el Partido Popular.

La respuesta del pueblo a la represión desmedida del gobierno ha sido ejemplar defendiendo su derecho a votar el 1 de octubre y saliendo una y otra vez a tomar las calles, como en la masiva huelga general del 3 de octubre y las movilizaciones de estas últimas semanas.

Ante este movimiento, más de 700 empresas han anunciado el traslado de sus sedes sociales fuera de Catalunya. Los oligarcas, ricos y banqueros catalanes están al lado de los capitalistas españoles y de su gobierno represivo. Del mismo lado se ha posicionado el PNV, a pesar de sus gestos hipócritas y llamamientos al diálogo ha manteniendo el apoyo al gobierno del PP para recabar beneficios para la burguesía vasca.

## ¡Todos a las manifestaciones!

El gobierno del PP, junto a Ciudadanos y PSOE, prepara la aplicación del 155 para anular la autonomía de Catalunya. Pretenden imponer en la educación pública su nacionalismo españolista y sus ideas reaccionarias, el culto a la rojigualda y la corona, también en Euskal Herria y el resto del Estado. Quieren poner de rodillas al pueblo de Catalunya, y dar una lección ejemplar a los jóvenes y los trabajadores de todo el Estado. ¡No lo conseguirán!

Desde Ikasle Sindikatua llamamos a los jóvenes a salir a las calles en Euskal Herria en solidaridad con los estudiantes catalanes, para derrotar esta represión franquista y defender nuestros derechos. Llamamos a realizar asambleas y crear Comités de Defensa en todos los institutos y facultades y, coincidiendo con la huelga convocada por el Sindicat d'Estudiants en Catalunya los días 25 y 26 de octubre proponemos parar las clases el jueves 26 de octubre a las 11h. y participar en las movilizaciones de las 12:30h. convocadas en Bilbo, Vitoria y Donosti.

Es el momento de luchar de la manera más contundente. Por eso llamamos a los compañeros y compañeras de Ikasle Abertzaleak y Ernai a movilizarnos unitariamente, para mostrar nuestra solidaridad con los jóvenes y trabajadores catalanes en su lucha por conquistar una república catalana libre de oligarcas y represión.

**¡Visca Catalunya lliure, republicana i socialista!**

**¡Únete a Ikasle Sindikatua!**

## Todos y todas a las movilizaciones el 26 de octubre a las 12:30h

- Bilbo: Plaza Eliptikoan (Moyua)
- Donostia: Bulebarrean
- Gasteiz: Andra Mari Zuriaren plazan

www.ikaslesindikatua.net

¡Afíliate en nuestra web!

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker iraultzailearen aldizkaria

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA: www.euskalherriasozialista.net • Tel: 685 708 281 • euskalherriasozialista@hotmail.com
IKASLE SINDIKATUA: Araba: 945 231 202 • Bizkaia: 633 133 818 • Gipuzkoa: 626 450 517 • Nafarroa: nafarroaikaslesindikatua@gmail.com
Ikasle Sindikatua / IkasleSindikaGi (Gipuzkoa) / IkasleSind (Bizkaia) / ikaslesindikatua